

Gure bezeroa (telefono ekoizlea) identifikatu eta amaierako produktuaren, eguzki plaka duen telefono mugikorraren kontsumitzailea izango ez dela argi utzi ostean, honek edozein zalantzaren aurrean edozein kontsulta egin dezan gure enpresarekin kontaktuan egoteko telefono bat jarriko dugu, arreta zerbitzu gisa. Web gune bat ere irekiko dugun gure ideia bezeroari errazago helarazteko, eta bertatik ere kontaktatu ahal izango du, interesatua badago, baita edozein arazo edo dudaren aurrean ere. Ez gara amaierako produktuak izan ditzakeen arazoaren erantzule izango, ezta kargu egingo ere, azken finean guk ez baitugu produktua fabrikatu.